

altza

«Etxeetan laguntzeko prestakuntza behar da»

Goiz-Argi Lanbide Prestakuntzarako zentruaren ikasturtea martxan da eta aurtengorako ekintza berriak antolatu dira. Alde batetik, lehen zikloan, sukaldaritza, jostungintza, eskulanak eta oinarriko hezkuntza emango dira 16 urtetik aurrerakoentzat eta FP1 baino egin ez dutenentzat eta bigarrenean berriz, etxerako laguntza jorratuko dute 19-30 urte bitarteko gazteek.

Goiz-Argiko arduradunarekin, Josune Lezanarekin, ikastaro berri hauei buruz mintzatu gara.

Zeintzu dira ikastaro hauen helburuak?

Gazteek pertsona bezala autonomia handiagoa izan dezaten lortu nahi da, hau lortuz gero, giza harremanak hobetu egiten baitira.

Lehenengo zikloan arituko direnentzako ez da profesionalizazioa bilatuko baldintza pertsonalak hobetzea baizik. Hori lortzeko ikasle eta irakasleen arteko harremanak landuko dira.

Bigarren zikloan berriz, lana lortzera zuzendutako ikastaroak eskainiko dira ezagutza teoriko-praktikoen bitartez.

Nola egin duzue ikastaro aukeraketa?



Jósune Lezanak prestakuntza pertsonala sakontzeko eta lan munduan sartu ahal izateko ikastaroak antolatzen ditu.

Lehenengo zikloa antolatu da jendearen eskakizunen baitan eta bigarren zikloan etxetarako laguntza, lanbide bezala bultzatu eta martxan jarri nahi izan dugu.

Nolako erantzuna ematen dio Altzak Goiz-Argiri?

Aspalditik dabil Goiz-Argi Altza eta Herrera inguruetan lanean, denborak eza-guna egin du gure lana eta lehen zikloko ikastaroak oso ondo joan dira azken denbo-

raldian. Bigarren zikloak, berriz, aurreko aldaketa txiki bat izan du, konturatu gara orain arteko jostungintza tailerra lan munduan zaharkitua gelditu dela eta hori etxetan laguntzeko prestakuntzaz ordezkatu dugu. Jostungintza lehen zikloan utzi dugu.

Zenbat ordaindu behar da ikastaroetarako?

Lehen zikloan arituko direnek 2.000 pezetako matrikula ordaindu beharko


dute urritik martxora bitartea arte izango den kurtsoagatik. 2. zikloan arituko direnek, berriz, 3.000 pezeta ordaindu beharko dituzte.

Dena den, edozein zalantza argitzeko, Goiz-Argik Los Boscosen daukan lokalera etortzea gomendatzen da (Casares Pasealekua 143-4.a) edo bestela 35 23 56 telefonora deitzea besterik ez duzue.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

KANTU LIBURUSKA

100 pezeta
bakarrik
balio du!!



**Zure afari, bazkari,
bidala eta lagun
giroetan
lagunduko dizun
liburuxka praktikoa.**